1.º URTEA

IBAIZABAL

27.ª GUEIA

IGANDEETAN IRTETZEN DA | BIZKAIKO ETA GUIPUZKOAKO EUSKERAZ EGUINA | DOMEKETAN URTETEN DAU

1902-ko Uzta-ren 6.ª

Euskalerrian, iru peseta urtean.—Erdalerrian, sei peseta urtean.
Guei Bakocha, Chakur chiki bat.

1902-ko Garagarrilla-ren 6.ª

IBAIZABAL-en Echea: Bilbon—Dendari Kalean (Calle de la Tendería) 19—Jaun José Astuy-renean.
Eskutitz edo karta guztiak zuzendu beitez artezkariaren echera: Tívoli, letra B, 2.º derecha.

EUSKALDUN MOTELAK

IBAIZABAL-ek daroan bizimodu larria azalduta, esan neban neure lengo irakurkizunean euskaldun gueienak guiñeala, baiña batez bere Bizkaitarrak, aren larritasun ta bizimodu tristearen errudunak. Eztakit zelango abeguia eguin deutsen neure esaera oneri neuŕe erritar maite arek; baiña ona dala edo charra, eztaukat ezetan ukatu bearrik orduan esaniko egui garratza. Ara emen zegaitik.

Bertan esan nebanez, zein eta zelakoa dan bat ezaututeko, biderik onena da jakitea zeintzuk direan beren eguikizun edo obrak. ¿Zer diñoe bada, nire erritar maiteak, zer dirauskue gure euskalzaletasuna adierazoteko eguiten doguzan eguikizunak? Zuek eta nik lotsaz esan bear doguna: *Probintzianuak baiño euskaldun motelagoak gareala gu bizkaitarrak*, bada aren artean guichi dira euskeraz berba eguiten eztabeenak; gurean barriz ez aiñ guichi; guk erdi aaztuta daukagu Bilbon sortu ta andik jatorkun euskerazko IBAIZABAL au; probintzianuak barriz aiñ abegui ona eguin deutse eze, Guipuzkoar utsa dirudi; ¡ainbeste dira bertan irasten dabeenak, ainbeste gueiago irakurten dabeenak!

Onegaz eztot esan gura bizkaitarren artean eztagozala euskaldun benetakoak, ez milla bider. Ukatu ezin leikean gauza da, IBAIZABAL jaio ta bizi bada, bizkaitarrak asmau, sortu, ta arguitaratu dabeela, len *Euskalzale* legueche.

Bai, gure artean badira guizon euskalzale errimeak, buruz eta diruz bere, euskeraren alde lan eguiteko beti prest ta ernai dagozanak, balio andikoak, zintzo eta fiñak. Poztutekoa da bai onelango buruak eukitea; baiña burua bakarrik, bearrezkoa izan arren, esku ta anka barik ezta ezertarako gauza.

Orain bada ankak eta eskuak guizartean languilleak, aloguerekoak eta luguin edo nekazariak direanez, alan da IBAIZABAL-en bere. Bizkaitarrak dira beren arduradun nagosiak, baiña ez bertan lan eguiten daben iraslari gueienak. Arazo onetan guipuzkoarrak oraiñarte aurrerea artu deuskue bizkaitarrai.

Au eguia dala ikusteko naikoa da IBAIZABAL-en edozein guei bat idiguitea; urrunago joan barik izan daitela azkenengoa, 26.ª Ara emen zer dakarren: 12 irakurkizun guipuzkoarrez, 1 ½ edo 2 bizkaitarrez. *Bi guk, amabi besteak;* ¿zeintzuk dira emen motelak? Eztago esan bearrik.

Baiña ezta au bakarrik. IBAIZABAL-ek beste periodikoak leguez *corresponsal* edo arduradunak bear dauz errietan eta ¿badakizue zeinbat topau dabezan oraiñarte? Euskalerri guztian 22: Bizkaian 7, Guipuzkoan 15. Emen bere Guipuzkoarrak nagosi.

Eta ziur eztakit, baiña neure buruko ule zuri guztiak bere jokatuko neukez, Guipuzkoan Bizkaian baiño euslari edo suskritore, ta irakurlari gueiago daukazala. ¡Oker egongo al naz onetan! (1)

Orain bada, ¿nundik etedator gure artean motel ta epeltasun lotsagarri au? Nire erechian, *politika madarikatutik*. Izan lei bizkaitar askok IBAIZABAL au, euskera utsean dagoalako, *bizkaitarrista*-tzat artutea. Ausse beiñipeiñ esaten eben len *Euskalzale*-gaitik nik dazautazan bizkaita bartzuk.

Baiña zein oker da ganora barik dabiltzan onek, eztago esan bearrik. Sarri ta askotan esan dau IBAIZABAL-ek bere politika guztia dala euskerea gorde ta zabaldutea, eta eguia dala au, bere edozein gueitan ikusi leike, batez bere 25.ª

Ea bada, neure erritar maiteok, ea bizkaitarrak, kendu daiguzan burutasun orrek; astindu daigun gure naguitasuna; bota daigun gure lepotik, daroagun lotsakeria; eta ekin, ekin errime euskereari.

Iratsi al dozuenok; irakurri besterik ezin dozuenok; eta zabaldu al dozuen guiñoan euskerazko gauza ta papelak, gure asaben berbeta gozoa ta ekandu garbiak.

A. L. ARANBEAZKOA

(1) Ez jauna; zuzen zagoz.

BIZI BEDI EUSKERA

(Nere lagun zar Juan Josse Arostegui-ri, Donkitua.)

¡Norbait dagoenian
barrendikan miñez,
bere buru pisua
arindu eziñez
edo bere odolak
oso irakiñez,
beriala oroitzen
baita sendakiñez,
eta deitutzen dio
borondate fiñez!

—

¡Lorecho bat badago
erdi igartua,
bere zuztar sendoa
aski aguertua,
zañetako zumoa
oso agortua;
daukalako lur dena
guztiz gogortua
nai luke preskatuta
egon zimaurtua!

—

¡Ontzian dabiltzanak
itsaso aundian
seaska bat bezela
bagaren erdian,
ian jira emanik
estura larrian!
¡¡besterikan ez dute
beren memorian,
galdu gabe sartzia
guziak errian!!

—

¡Chimist eta trumoiak
diranian lertzen,
kaskabar, aize miñak
ere chistu jotzen,
diranian euri ta
jasa denak batzen,
estalpia besterik
ez du desiatzen!

—

¡Ama batek badauka
magalen gañian,
aurra miñez, asnasa
artu eziñian,
edo odol miñdua
daukala zañian;
pozez laguntzen dio
ark aleguiñian,
biotzeko indarrez,
alduben añian!

—

¡O euskera dontsua
leial ta umilla,
inguratu zaizuna
gaitz ta larri pilla;
egon zera etzana
triste erdi illa,
daukazula barrenen
neke ta nazpilla,
abiatua zera
sendakiñen billa!

—

Ardi mantso bigun bat
bezela etzinta
asnaz gozo nai diña
eratu eziñta
egon zera zedorren
buruaz etzita,
bazeundeke bezela
ezurrak autzita,
edo erru char denak
gogorki eutzita.

—

Seme onak entzunik
zure antzi maiñak
biotzaren erditik
benetan eguiñak
bagatoz ama pozez
euskal seme fiñak;
zureganatzen gaitu
odol eta griñak
eguitera chit pozez
gure aleguiñak.

—

Guk zaitugu Euskera
guk bai sendotuko
guk dizkitzugu mami
denak sendotuko
Fedian seme onak
guerade bilduko;
odolarekiñ degu
denak lagunduko,
¡¡mundua dan artian etzera galduko!!

—

Bildu gaitian bada
euskaldun guziak,
aberatz ta pobreak
aundi ta chikiak;
sendatu zaizkiogun
amari zauriak,
estali bere sustrai
erdi agueriak,
eta kendu barrengo
estura larriak.

—

Preskatu zagun lurra
legortua ia,
aze zaiogun kontus
daukan egarria;
lur gozo asko eman
kendurik arria,
eskeñi gure odol
eder ta garbia,
arguitaratu dezan
lorecho berria.

—

Euskera biziko da
pozez ta pakian
laguntzen badiogu
guziok batian,
bereganatu gaiten
chit indar betian,
bagueundeke bezela

batarik katian,
zerua eta lurra
diran bitartian.

—

Eutzi sendo, bai, eutzi
zenbat estu obe,
euskal seme leialak
izango guerade;
gure laguntzat zazpi
probintzi badaude
aiekiñ bat gu ere
borondatez gaude.
¡Guk eztegu bizi nai
Euskerarik gabe!

—

Apaizak pulpitotik,
eskolan maisuak,
siaskako aurrari
bere gurasoak,
saiatu erakusten
euskaldun pausoak;
euskarari zabaldu
biotz ta besoak,
barruratu beraren
oitura gozoak.

—

Maita zagun zeruko
Jaun eta jabia,
guzien eguillea
denen erreguia,
aitortu zagun pozez
Beraren leguia
antziñetan bezela
euskaldun jendia,
izan bedi barrenen
dubela fedia.

—

Izkuntz pare gabia
dontsua zu zera,
mundua dan artian
galduko etzera;
ez bildurtu etsaiaz
baizikan *¡aurrera!*
zure laguntzan pozez
denak emen guera,
oju egiñaz irme
«*Bizi bedi euskera*».

PEPE ARTOLA.

EUSKALDUN ERDALZALEA

Erretrato berria

(Errazoiagaz diardun
Baña ezeiñ alperrikan jardun.)

I

—¿Basili; piperra jan aldezu?
—Bai ta... oso miña.
—Ezagun dezu.
—¿Zergatik ba?
—Mingaiñ erre, biotz erre, esan oi da ta...
—¿Eta zer?... ¿Nere biotza errea aldago?
—¡Bai orisse! esango nuke, kia dariôla dago ta... badakizu... sua dagoan lekutik ateratzen da kia, eta suak erre eguiten du; Jose Pallu ibiliko da or, Jose Pallu.
—Jose Palluk artu du onuzkero karta ederra, eman bearko dit sastipasioa; bestela an juango zaio enbargua. Esaten nion kartan: sastipasion ó embargasion.
—¿Eta zer kenduko diozu José Palluri?
—Beste gauzarik ezpada, larrua, pellejo.
—¿Pellejo zaaguia ezta ba? Bizirik ere zaaguitzat balio du ark. Amaika zaagui-azal egongo dira ark baño ardo guchiago barruan iduki dutenak.
—Jainkoak gorde bearko du ba neri sastipasioa ematen ezpadit.
—Estutuko dala uste det urdalletik.

II

Andik iru egunen buruan korrioak ekarri zuan José Palluren

Sastipasioa

Pekatu bada fama
Norbaiti kentzia
Atzera biurtzia
Da penitentzia;
Ala eman dirate
Oraiñ sententzia,
Basilirekiñ bear
Da pazientzia.

—

Ez omen da eguia
Nik lendik esana
Señorita Basili
Neska zarra zana;
Ala izan dedilla;
Esan, nai dan dana;
Baña guchienaz da
Len gaste izana.

—

Oraindik ezpadago
Osoro zartua,
Urteetan dago bai
Aurrera sartua,
Baña iñola ere
Ez da pekatua,
Izatea mundura
Antziña sortua.

—

Orain zar izan edo
Lenago gaztia
Diferentiak dira
Bata ta bestia,
Baña ez da conbeni
Disputan astia
Eta betozkoturik
Iñor ikustia.

—

Emakume oberik
Eztaukala lurrak
Azal zuriagorik
Ezta ere elurrak,
Lodi eta mardulik
Bakarrik ezurrak,
Eta gañerakoak
Guziak guezurrak.

—

Oso gaitz izan bear
Du beltza zuritzen,
Alperrik nabillela
Zait gaur iduritzen,
Naiz Chimiñua jantzi
Modara Parisen,
Chimiñua beti da
Chimiñu guelditzen.

—

Edertasunik saltzen
Iñun balegoke,
Kostako dana kosta
Garesti naiz merke,
Zuretzat pozika nik
Erosiko nuke,
Erregalatutzeko
Pelukaren truke.

—

Nere borondatea
Ona da izatez
Erreguiña ziñake
Nere borondatez,
Baita ere Santa andi
Biak bide batez,
Orra fama biurtu
Bersoen bitartez

—

Eguiñ bearko dezu
Oraiñ esamiña
Erretratu au ondo
Dagoan eguiña
Edo eguiten ote
Dizun sabel-miña
Bada eguia maiz da
Izaten samiña.

III

Muy Señora mía: Ahi va un poco de porrusalda para templar nervios, que son guitarra-cuerdas paresidos. Si esta gazipunto, echuste agua, y si esta guezacho sal. Ahi esta errestitusion de pama quitao, y bersos no tienen aitzaquia: no hay que pegar illetas. Si no estan de gusto mandemuste molde, y mañana mejor.—*Jose Pallu.*

Basilik etzekian, ez non zegoan, ez zer esan, eta ez zer eguiten zuan. Alper, gaizto, lotsagabe, ordi, zikiñ lapur, guezurti, Barrabasa. Auek ziran itzikan onenak. Aotik chinpartak eta kia botatzen zituan, eta beguietatik su-garra.

Bizkaitar atso lodi eskale batek aditu zuan Basiliren errosarioa, eta galde zuan nola zuan izena emakume ark. Erantzun zioten Basili zuala eta esan zuan ondo zetorkiola.

—¿Zergatik ba?

—Basilisko erderaz, da euskeraz ersuguea, eta Basili ere zerbait ala izango da, dirurienez; bestela ipiñi bearko zitzaion Martinika.

—¿Zergatik?

—Su asko ematen dualako.

Ari zan issilldu ere gabe Basili aoak ekarri alian, eta esan zion Bizkaitar atsoak;

«Errazioagaz diardun Baña ez eiñ alperrikan jardun.»

P. M.

1902-ko Baguillaren 30 ean.

NEURTITZ-KALTE

II

Entzuna da guztiz, chorierritarren artean atan bere, bertako semeren batek atarariko erezi au:

Asue ta Erandio,
Sondike ta Loiu,
aleguiñek eiñ-arren,
arto guichi koiu.

Erezi au eguiaz iarria dala danak eztiñoe. Orrek *danok* asustarrak, loiutarrak, erandiotarrak edo sondiketarrak badira batez bere, orrek *danok* esango dabe euron kaltez erezi ori eguin ebenak, bera eguiteaz guzur andi bat esan ebala; euron *soloak* (eta ez *bakarrak*, bitzuak eta irutsuak... baiño) emoten dabela naiko artorik, au ta ori ta bestea. Baiña iñork ukatu eziñ leiken gauzea da erezi edo *kanta* ori benetako (guzurra badiño bere) benetako neurtitza, neurtitz ikukocha dala.

Benetako neurtitz onen antzera eguin lei Neurtitz-kalteren kaltez beste bat, apur bat politoago edo apur bat moizago. Nik neuk... atara dot bat. Ia ¿ikusi? Ara or:

Neurtitz on baten billa
alperrik ibilli...
Neurtitz-kalten lanetan
ezta bat aguiri.

Esan leike bat edo batek, eta eguia esanaz, eztala guztiz erezi onetan antzeratu edo *imiteu* leenengo erezia. Baiña guzurtitzat bigarren erezia iaurtiko dabenik eztago. Ta iñor balego orretara azartu edo *atrevidako* danik, olango gauzarik eiñ baiño leen, irakurri bei Neurtitz-kalteren aste onetako lan kaltegarria.

Leengo astean Neurtitz-kaltek alkateari ostikadea botarik, uste neban nik aste onetan *gobernadoreantzat* izango zala Neurtitz-kalteren ostikadea. Baiña... ez; oraiñgoan mutill papu-gorri bat izanda ostikada-artzallea, Eguzkia, Eguzkia, irakurleak. Jaungoikoari eskerrak, ostikadea uste uste-bakoa izanda, Eguzkia ioteko uste barik botarikoa... ¡ta alan obeto! Ostean, *bestela*... (eta ez *ondo*) eztakigu zelango egunak igaroko genduzan, Eguzkia geugaz asarraturik, zelango gaubak, obeto esateko, eukiko genduzan, aldendurik guganik Eguzki jaunak bere arpegui arguia. Baiña ichi iazoko zanari ta entzun, irakurri iazo dana:

Eguzkiari

»Egunaz dozu agertuten zuk
»(Neurtitz *kojoak* badira batzuk)
»zeure arpegui gorria
»(¿Non dozu neurtitz neurria?)
»egunaz zatoz biraldutera
»(*Egun* miñgotsak gogo-itz ganera?)
»gugana zeure arguia
»(Neurtitz erren bat barria)
»¡Ai *gaubaz* bere bazengoz gugaz!.
»(Egunaz bere naiko da zugaz...)
»Asse bai gutzat zoria
»(¿Zu gutzat? Ezta ez eguia)
»mundutarraren bizitza ona
»(Mundu-zalea zara, guizona)
»izango leiteke obia
»(Neurtitza naiko *luzia*.)
»¡Nork leukan oraiñ astia
»jartzeko zuri *bastea*!)»

Bai, irakurleak, *bastea* edo zeozer bear leuke aiñbeste ostikada botaten daben... pizti *bastoak*, b-barik eta b-gaz. *Bastea* edo zeozer bear leuko diñoanak Eguzkiagaitik:

«Egunaz dozu agertuten zuk
zeure arpegui gorria...»

¿Zer ba? Gabaz erakutsi lei Eguzkiak bere arpegui *gorria* edo *urdiña* edo dana dalakoa? *Bastea* edo antzeko gauzea bear leuko diñoanak Eguzki jaungaitik:

«¡Ai gaubaz bere bazengoz gugaz!...:»
eta eztau besterik bear diñoanak
«mundutarraren bizitza ona»

¿Aiñ da ona, Neurtitz-kalte, mundu onetako bizitza? Eta ona balitz ainbestean bere ¿oindiño obea izango leitike *gaubaz* ta *egunaz* Eguzkia geugaz bagueunko, *egunaz* bakarrik eukita baiño? ¿Zelan, zelan... izango baleitike *sepulturea*, au da, obia, mundu guzti orren bizitza?

«Izango leiteke obia»...

¡Ai Neurtitz-kalte...
kaltegiñ zara zu,
ostikalari polita zara zu.
Neurtitz-erri danean nean,
sartuten zarenean, nean,
ostikada sendoak iaurtiten dozus.
Urrengo gueirarte, Neurtitz-kalte.

PAULO ZAMARRIPA TA URAGA.

LENBIZIKO SAMIÑA

II

(Jarraipena)

Egun aietan Joanchoren aita iñoiz baiño ere gogo andiagorekin zebillen arrantzan.

—Arraiak diru andiak eguingo ditu—esan oi zion emazteari—ta ichurak diran bezela zerbait ateratzea bada, izango ditugu chanponen batzuk esku artean, ta bear zaio Joanchori aspaldiotan daukan ames edo naia. Dana erosi bear zaio berria. Bear du guizagaisoak; oiñetan ia zer sarturik eztauka, chapela oso fnaiztua darabil, ta soiñeko adabakiz betea jai andietarako ichurazkoa ezta.

—Bete bear zaio, bai, bere gogoa—erantzuten zion emazteak—aiñ zintzoa dalako bada ere, aiñ argui ta biotz onekoa, aiñ ederra mutilla. Ez gurea dalako baiña eztago inguruetan Joancho bezelako umerik.

Orrelako gogamenak buruan zituala jaikitzen zan Josse Antonio goizean goiz, sartzen zuan otarran ogui legor zati bat egun guztirako jakitzat, eta an joaten zan urezko zelai zabalaren erdira, naiz ta egon ichasoa bare ta paketsu, naiz ta aserrezko arpegui beltzarekiñ marmarrean billatu.

Egun batean, lotan zegoan umeari, bear-bada bere jantzi berriarekin amesetan zegoan semechoari, beguiratu gozo bat eta laztan luze bat emanta guero, joan zan ichasora Josse Antonio... baiñan etzan gueiago echera biurtu. Ekaitz gogor batek irten zuan eztakit nondik, eta ur gañean zebiltzan guizon asko ondatu zituzten bien artean. Bere semearentzat jantzi berriaren billa zebillen guizona ito eguin zan. ¡Ai! ¡Ekaitzak eta ichasoak eztaukate biotzik!

III

Guertaera mingarri ori jakin zanean, negar andiak eguin zituan Joanchok, batetik bere Aita guztiz maite zualako, bestetik ulertzen zualako doekabetasun izugarriak zetorzkizkola, ta baita ere bere ama negarrez ikustearekiñ bakarrik, bada negarra, izurria bezela, esarkorra izan oi da.

Baiña ala ta guztiz ere etzitzaizkon bere amesak aztu, ta Gabon gabean gauza on ta gozo askoren zai zegoan. Eldu zan apal-ordua, ta amak ipiñi zion ezkuetan ogui zati bat, Jaungoikoak daki nondik eta nola zorretan lortua, ta jarri zuan mai gañean erretillua bete sopa edo zuku azukre pitin batekiñ zerbait gozatua: etzegoan gueiago ezer. Orduan negar barrietan asi zan Joancho. Martiñek, Anjelek, Josechok eta beste bere lagun askok esan zioten ikastechean, onelako ta alako janari ederrak zauzkatela gaberako, ta berak, Joanchok, etzuan alako gauzarik ezer...

DOMINGO AGUIRRE

(Jarraituko du.)

¡Ku-Ku!

Biotz berako tortollochoa
Zegoen urrungaz chara batean
Non bere kabi guztiz gozoa
Aritz mardulak zeukan gordean.
Itur-burucho jostalluchoa
Ala arkitzen zan bere oñean,
Nola bildolscho churi gaissoa
Lo-lo chit umill garo-tartean.
Lanbro intza zan; ¡Udaberria!...
¡Zeñen eztia dagon mendia!
Arzai mutilla: ¡irrintz uju-ju!
¿I baña abeto bizi dana dek
Kale guizona, aberatz badek?
Arzaia issillik; choriak: ¡Ku-ku!

ASTEKO BERRIAK

Zarautzen Urtaren 1.ª 1902

IBAIZABAL-en Artezkari jauna.

Nere jaun eta laguna: Lengoan esaten nion nola festak asi ziran erri onetan; orain nai diot esan zerbait nolan izan diran. San Pelaio aurreegunean ekarri zuten santuaren ondone edo erlikia Iñurritzako elizachotik errira, jende talde aundia lagun zala.

Santuaren egunean goizeko 4.tan bildu zan erriko musika ta jo zuan diana kale denetan, azkarbe tetzen zirala chakolinteguiak, tanbolinteroak ere eguin zuten kale jira 7 ½ tan. Guero, 9 ½ tan irten zan prozezioa parrokitik Iñurritzara; ondonea eraman zuan bikarioak, lagun zirala Aiuntamentua, ta beste aguintedunak. Meza nagusia izan zan 10 ¼ tan; sermoia eguin zuan Don Venanzio Ameztik. Gora aundiak aditu ditut jaun orren itzaldiagatik; danak merezi ditu, bada euskaldun garbia da, baiña samintasuna artzen zuan nere biotzak erderaz ari ziralako sermoiguillearen famak eguiten; ¿zer gazteak, erdalerrian izan zeratelako batzuek, eta besteak eztakit zergatik, ernegatu aldezute gure izkuntza maiteaz? Eztet uste; ia bada, Zarauzko jende prestua; itz-eguin euskaraz, zuek kapelakin jazten zeraten guizasemeak, eta mantillachoaz jazten zeraten emakumeak; maite zazute gure ama euskera.

Arratzaldean 3-tan atera ziran bi zezen Lasturkoak, eta oiekin jendeak eguin zuen farrik azki; ondorean musika ta guzti joan zan jendea Iñurritzako zumardira. Murmurra zegoan Batzokiko gazteak aurreskua eguingo zutela, eta siñistu guenduenak eraman degu chaskua; euskarazko dantzak baiño erderazkoak gueiago gustatzen ote zaizkaten nago oraiñ.

Bigarren egunean ere goizetik musikak diana jo zuan eta chakolinteguietan jendeak itz-eguiten zuan arratzaldeko aurreskuaren gañean, erri danak zeukan ori ikusteko gogoa; baiña lenago ziran zezen ta bersolariak. 11-tan atera zan zezena, onen ondorean igo ziran bersolariak, bat erriko echeko balkoira, bestea jaun Otamendiren balkoira; onrratu dute gure euskera. Abek ziran Olegario Garin, *Hernani*-koa eta Jose Urkia Usurbilkoa.

Arratzaldean Iñurritzan izandu zan dantzaldia; auzoko gazteak dantzatu zuten lenengo; asi ziran zizirikoak andik eta zizirikoak emendik, aguertzen dira zelaiaren erdian jaun Matias Rementeria aurrean, eta jaun José Ramón Urkía atzean; jendea arriturik zegoan oieri beguira, baguenakien dantzariak zirala, baiño orrenbesteraiño etzan uste; merezi zuten eta chaloa pranko jo diote, Gabean, aurregunean bezela, erre ziran suak, eta bukatu dira San Pelaioren festak.

Agur eta urren arte; zure lagun.

J. E.

Lekeitiotik

Urtaro eguiten daben leguez, aurten be eguin dabe arrantzaleak San Pedro euren buruzai edo patroiaren egunean elizkizun ederra. Lenengo, goizean, bederatzietako mezea, ta onen ondoren elizinguru edo prozeziñoia santuaren ondone edo erlekiagaz. Guero amarretan meza nagusia bere berbaldiagaz, zeiñ eguin eban Erkiagatar Bitoriano jaunak; erezi edo kantau eben Arriolaren meza polita ta eskintze edo ofertorio bitartean, Eslaba napar-euskel entzutetsuaren *Tu es Petrus* bardinbaguea.

Biaramon arraztian eliz-ibilkun edo prozeziñoia kalerik kale, nasara osterea eguinda, San Pedroen irudiagaz, kofradiako ozentari edo maiordomo barria ta zaarra aiuntamentukoen ondarik dirala. Au amaituta berealache kassa-errenkia edo aurresku antzeko bat, guizon edo mutill anka-arin batek, lau guizonek sorbalden ganean dabela, berarizko kucha anchinako baten ganean eguiten daben dantza zaarra. (Aurten arrantzale gazte batek eguin dau). Lenengo eguiten da ozentarien eche-aurrean ta guero San Pedroen irudi baten aurrean.

Baguillean Jesusen Biotzari eguiten izan jakozan elizkizunak amaitu dira. Ill orretan bertoko seme Azkue jaunaren liburu politetik eguin dira gogarteak; baiña bere euzkerazko oiuak eztira erezi edo kanta, ezpada ze erderazkoak. *Organisteak* erderazkoai ederrago erechi deutse auza. ¡Zer eguingo jako ba! Olakosseak gara gu euskaldunok: erdera eguin ezkero, charto dagoana be ondo dago; euskera eguin ezkero, ondo dagoana charto dago. ¡Guero euskaldunak... gareala!

Orain denporachu danean etorri jaku eskribau barria erri onetara. Erdaldun utsa joan eta erdaldun barru-barrukoa etorri. Eta emen batek baiño gueiagok diño: ¿Zelan esango dau orrek leguez *doy fé*, euskerarik eztakiela, euskaldunen iratz-aguerkaiak edo *eskritura*-k eguiten dituanean? *Doy fé* ori zelangoa dan itandu gura badeutzazue, artezkari jauna, gure ekauta edo diputauari, jakin gura gagoz emendiko euskaldunok. Berak eztakian berbetan esaniko gauzai *doy fé* emon lekiola iñok, ezta sinistekoa. Erdaldunaren eskubideak andiak dira Euskalerrian!

Pelota-toki barría erdi amaitu dabe erri onetan. Gazteria amurruz asi da jokatuten ikusi dabeenean pelotan eguiteko moduan.

Udachoriak asi dira aguertuten, au da, bertoko jatorria dabeen andikiak.

Kanposantu barria beste leku baten eguin bagarik zaarra nasaitu, barriztau ta obeto atonduteko asmua aiuntamentuak artu dabela diñoe. Echake damutuko ori eguiten badabe.

Kanpoa guztiz ederra dago; garitza ta enparauak sekulakuak, atzerachu egonagaitik.

Zerbaiten eidabiz arrantzaleak aspaldichuon zaburdiñaren arrantzuagaz. Batzuk ezeideuke amesik kanpora atunetan joateko, berton naikoa irabazten dabeelako zaburdiñagaz.

BARRIZALEK.

Asutik

IBAIZABAL-en Artezkari Jauna:

Aspaldi onetan egon naz Asutik barri batzuek zuri biraldu gurarik, eta gaur arte ezin izan dodaz biraldu.... Gaur orraitiño ez batzuek bakarrik, bitzuek bere or ioatzus.

Doniane-egunean Sondiken *erromeri* andia egon zala ezta zertan esan. Oguei milla ta gueiago egon ziran eta ibilli bere bai, guichi edo asko, egun atan Sondikeko landa entzutetsu ta zabalean. Oguei millon artean etorri ziran ¿zertarako da guzurra esatea? etorri ziran Sondikera batzuk, etorri ezarren kalte andirik eguingo ezebenak bere. Eta onen artean egozan *manu*-brio edo *peru*-briodunak, guizon astunak ichura baten, eta ichura bitan bere bai menturaz.... *Astunak* diñot *ichura baten* eurok ioten eben soiñura dantza *ariñik* etzalako eguiten. Soiñu atara eguiten zan dantzea zan erdaldun utsa, esan gura dot ez garbia, ta soiñua bera urrean zan deabruaren putsa. Soiñu-jotzalle orrek danak zirala Ebroz arunztik ona etorririko *choriak* ¡zertan esan be ez!... Esan da itandu bear dana da: ¿Zelan datoz (oiñez ezta?) zelan datoz orrek *mutillok* Sondikera, Deustun da beste erri askotan olango soiñuekaz ordu bat bakarrik ezin egon leitikezanok? Edo badatoz bere, ¿zergaitik ez iakie eguiten, Loiun San Pedroegunean eguin iakiena? Loiura etorri ziran orrek euron soiñu atzituekaz, *baiña Loiun loiutarrak bizi dira*, ta soiñu-jotzalle erdaldunok soiñuaz beste leku batera, edo eurok esango ebea leguez, *con la música á otra parte* ioan-bearra eukien eldu ta lasterrean. Beguitu beie erriguizonak edo kontzejalak eta alkate jaunak zelango mezedeak datozan orrek *belefraguok* asago baiño asagoago norberagandik eukiteaz. Loiukoak beguitu dabe

ondo.... ¡Urra bada Loiutarrari! ¡Bizi beitez loiutarrak!

«Nire semea ona da, baiña obeagoa obeu» esaten eban Asuko *Chafran*, gaur ilik dagoanak. Ta onen antzera esan lei Asue beragaitik bere: «Asue euskalduna da, baiña euskaldunagoa, euskaldunagoa.» ¿Zergaitik diñodan au? Begitu emeko ta albo-erri batzuetako ioias eta *erromerietara*. Bertako gazte asko ikusiko dozuez erdaldun dantzatan dantzari, *kaskañeta* berezko ta euskeldunen ordeaz *tarrañuela* erdaldunak ioten, erderazko erezi edo *kantak* erezten eta.... eta ¿Euskaldunak olan? ¡¡Errukarriak!!

Irugarren barria (barri barria, gaurkoa) izan beitz au, irakurla maitea. Gaur goizean, Loiuko elizan euki dogu meza eder bat, Erandioko erezlari edo musikuekaz ta guztí kanteua, Santa Luzia birgiña edo neskutzaren omenez edo alabantzas. Berbaldia euki dau Lezamako abade jaun on Ceferino Apraizek. Berba errez eta gozoakaz, eta batez bere euskera *baskuentze*-bako garbiegaz, azaldu dau ederto santa andi beronen eriotza gomutagarria, erakutsirik neskuts edo birjiña entzutetzua kristiñau guztien eredu edo ispillutzat. Errez eta garbi adierazo eban zelan santa Luziak azpiratu ebazan lur onetan arimen iru arerioak, eta entzula guztiori deitu euskun guk beste aiñbeste eguitera.

Loiu bertako landan beste urteetan legez arratsaldean aiñbat atso ta agurak eguingo dabe dantzan, aiztu ezpaiake.

Urrengoan barri geiago Agur eguitan dautsu.

BARRITSU BATEK.

IZKIRIMIRIAK

Bi arrai-saltzaille, neskazarrak, atera ziran Guetaria-tik beren arraia buru gañetan zutela, Arantzatzu aldera.

Nola bidearen berri etzekiten, bateri jarraitu bearrean, asi ziran beste bidetik eta guertatu ziran berriz ateratako lekuan.

—Aizan, Machiñen, eliza orrek gure errikoen antza aundia diñ.

—Baiñan Kachalin, nola izango ezdiñ bada, Guetariako eliza den eta.

—Ara, ¿eta zergatik edo nola azaldu otegaitun gu onera?

—¿Nora joan bear diñagu ba, Guetariakoak gueren jatorriz gaitun da?

A. AMONARRIZ.

—

Bein Oiarzungo ferira Perrando zijoala, arkitu zan chit larri, eta sasi baster batera joan eta galtzak eskatu ta asi zan bere bearrak eguiten.

Igaro zan adiskide bat eta Perrando ala ikusirik galdetzen dio:

—¿Zer ari zera Perrando?

—Emenchen, denak eguin bear deguna eguiten.

—Ezta eguia, Perrando. Zuk eguin dezuna, zuk bakar bakarrik eguin zenezakean, eta ez beste iñork.

—Arrazoi dezu, adiskidea, lendabiziko nere bizi guzian guezurretan arrapatzen naute. Esan zenezake, lendabiziko ziria zuk sartu zeniola Perrando Amesketakoari.

ELIZEGIHEA.

Mutill gaizto bik, solo arte baten zear joazala, agurachil bat ikusi eben lanean; da lotsea beste baterako ichita esan eutsan batek:

—Ereinen, erein, agurea, elduta dagonean gueutzat izango da ta.

—Izan leike, chocho. Garagarra ereiten diardut eta.

IGARKIZUNAK

I

Mendi aldean egoten naiz ni
bata askotan entzuten
bi, irua ta *lau* dirado
beguiarekin ikusten;
jaiotzen diran aurchoak *dena*
berekin dute izaten,
¿oraindik ere ez aldezute
ni zer naizen asmatutzen?

R. ILLARAMENDI.

II

UR UR

Frantziako erregue

L. OYA.

Lengo astekoak: lenengoa, *Artola;* bigarrena, *Bear dezunean bat eska bi*; irugarrena, *goiko errenkuladan edo multiplikandoan jarriko dira* 12345679; *beekoan 2-koak edo 3-koak irtetzea nai ezkero, esate baterako, azkenengo lumerua edo 9 multiplikatu 2 edo 3-kin eta irtetzen daben lumerua jarri; au da*, 18 *edo* 27, *ta irtengo dabe denak bikoak edo denak irukoak*,

12345679
× 18
98765432
12345679
22222222222

Epai au bialdu dau Donostiako José Miguel Azkuek, Lenengoarena Oñatiko batek.

GURE SUSKRIZIÑO-BATZAILLAK

BIZKAIAN

Bermeo, José Antonio Zabala; *Lekeitio* Julián Zarreta; *Lemona*, Prudencio Arrieta; *Plencia*, Bernardino Sierra; *Munguia*, Eustasio Bilbao; *Markina*, Felipe Eizaguirre; *Durango*, Roberto Soloaga; *Ondarroan*, Aquilino Echevarria.

GUIPUZKOAN

Donostia, Zacarias Leizaola, Loyola, 17, liburuteguia; *Azpeitia*, Salvador Bengoechea, *Bergara*, Francisco Oyanguren; *Tolosa*, Baleriano Mokoroa; *Irún*, Guillermo Iguaran; *Deva*, Esteban Egaña; *Zumaya*, Pedro Ignacio Aizpurua; *Zarauz*, Jenaro Elizondo; *Oñate*, Fermin Bengoa; *Mondragon*, Antonio Kerejeta; *Eibar*, Julián Odriozola; *Renteria*, Gabriel Echebeste; *Pasaian*, Juan Valverde; *Arechabaletan*, Francisco Galdós.

LA EDITORIAL VIZCAINA dechon moldaguintzan
Gran Via, 26 eta Ledesma, 15.

IBAIZABAL

BIZKAITARREZ ETA GUIPUZKOARREZ EGUIÑA

Euskalerrian . . . . . 3 peseta urtean
Erdalerrian . . . . . 6 » »

Guei edo numero bakocha chakur chiki bat
Astean Asteangoa da, ta igandeetan edo domeketan urteten dau

Suskriziño lekua: Bilbon, Dendari kalean (calle de la Tendería), 19

JAUN JOSÉ ASTUY-RENEAN

Redakziñoa: Bilbon, Tiboli, letra B, 2.° derecha

Iragarriak

1.° orrialdean . . . . . peseta 1 lerroa
3.n » . . . . . » 0,20 »
4.n » . . . . . » 0,15 »

Beste klaseetako iragarriak itundu edo conbenidu bearrekoak izango dira.
Aurretik pagau bear dira, bai suskriziñoak eta bai iragarriak